



J.- URDUÑA-ORDUÑA UDALERRIKO ERABILERA PUBLIKOKO MENDI LURSAILEN EMAKIDA, ONURA ETA PROBETXUA ARAUTZEN DITUEN

Hitzaurrea.-

Udal honek, mendi hauen guztien jabea izanik, Orduña-Orduña udalerrian dauden erabilera publikoko 103 (San Pedro-La Junquera), 106 (Leigorriko meatzeak), 109 (San Anton eta Los Milanos-ko harana) eta 110 (San Vitores) zenbakidun mendiak administratzen ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren Mendietako Zerbitzuaren laguntza teknikoaz. Hori de la eta, Urduña-Orduña udalerriko erabilera publikoko mendi lursailletako probetxu emakidak eguneratu behar zirela ikusirik, ondoko ordenantza hau egituratu da:

Labakien definizioa.-

Labakiak erabilera publikoko mendi lursailetan egindako emakidak dira. Hasiera batean lursail horiek guztiak zereal landatzeko erabiliak izan baziren ere, gaur egun larre bihurtu dira eta jarduera horretarako erabiltzen dira.

1. artikulua.

Orduña-Urdunako udalak erabilera publikoko 103, 106, 109 eta 110 mendietako lursailak erabiltzeko baimenak emango ditu. Emakida horiek guztiek ordenantza hau, Toki-erakundeen ondasunen erregelamendua Mendietako Araudia Toki Entitateen Ogasunen Araudia, Mendiei eta Babespeko Natura-guneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 94/3. Foru-Araua eta bere garapenean emandako gainontzeko xedapen guztiak ere bete beharko dituzte, eta edozein kasutan, behar izanez gero, gai honi buruz indarrean dauden zuzenbide publiko zein pribatuko beste lege arauekin bat egin behar dute ere.

2. artikulua.

Erabilera publikoko mendi lursailen onuraduna izateko ondoko baldintza guztiak bete behar dira:

- Adin-nagusia izatea.
- Gutxienez aurreko bi urteetan Urduña-Orduña udalean erroldatuta egotea eta azken 18 hilabetetan udalerrian bertan benetan bizitzea.
- Abeltzaintza ustiaketa baten jabea izatea.

3.artikulua.

Ruzabaleko batzordea osatzen duten entitate lokal txikiak auzokoek (Lendoñogoiti, Lendoñobeiti, Mendeika eta Belandia) ezin izango dute lubaki hauek jaso beraien auzoetan lubaki propioak dituzte eta.

4.artikulua.

Erabiltzeko baimena interesdunaren eskaeraren ondorioa izango da. Eskari horretan ondoko datuak zehaztuko dira:

- a) Eskatzailearen izen eta abizenak, NANA, eta lanbidea.
- b) Labakian sartuko diren abelburuen identifikazio zenbakia.
- c) Antzintasuna adierazten duen erroldatze agiria.
- d) Abeltzaintza ustiaketaren agiriaren fotokopia. Agiri honetan eskatzailea titular gisa agertu beharko da.
- e) Egindako azken saneamendu kanpainaren agiriaren fotokopia .
- f) Erabiltzeko eskatzen diren lursailak identifikatzea.

- g) Zerga betebeharrak egunean eta beteta dituela adierazten duen Bizkaiko Foru Ogasunaren egiaztagiria..
- h) Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean eta bete dituela egiaztatzen duen Gizarte Segurantza eta Lan Ministerioaren agiria.
- i) Udal administrazioarekin zorrak ez dituela adierazten duen Urduña-Orduña Udalaren egiaztagiria.

Aipatu datu eta agiri guztiak ez dituen eskaera ez da kontutan hartuko.

Eskatutakoa agiri edo daturen bat faltako balitz udalak eskatzaileari hutsunea jakinaraziko lioke eta hamar eguneko epea emango lioke hutsunea betetzeko. Horrela egingo ez balu eskaera bertan behera eta inolako tramitaziorik gabe artxibatuta geratuko litzatekeela jakinaraziko lioke ere.

Erabilera publikoko kalifikazioa eta planteatu erabilera osagarriak direla adierazten duen Mendi eta Natura-guneen Zuzendaritza Orokorraren aldeko txostena ezinbestekoa da alde zurretik eta erabilpen baimena eman ahal izateko.

5. artikulua.

Emakidak gehienez ere bost urterako emango dira. Epe hori amaituta, Udaleko organu eskudunak egoki baderitzo, emakidak urtebetez luzatu ahal izango dira, gehienez ere hiru urtez. Luzapenak espresuki ebatzi beharko dira.

6. artikulua.

Ondoko hauek onuradunaren betebeharrak dira

- a) Txarrantxa, burdin sare, egurrezko zutoinaz, ez kai naturalaz edo alde zurretik ziren ohiko harrizko hormaz labakiak ixtea. Ez da beste inolako material mota bat onartuko labakiak ixteko.
- b) Urduña-Orduña udalak ezarritako kanona ordaintzea adierazitako epearen barruan.
- c) Lursailari era arrazional eta ordenatuan probetxua ateratzea.
- d) Labakiak larre moduan erabiliko dira, eta bertan eta zuzenean onuradunaren haziendak baino ez du probetxu aterako. Beraz onuradunak eta ez beste inork atera dezake probetxua labakitik.
- e) Abereen osasunari buruz indarrean dauden lege xedapenak betetzea eta egokiak diren saneamendu kanpainak betetzea. Abeltzaintza ustiaketan dauden abereak zein labakian egongo direnak osasun egoera onean egon behar dira. Beraz, saneamendu eta abereen mugimenduaren kontrolari buruzko xedapenak betetz eta erabiltzeko baimena erabili ahal izateko saneamendu agiriak aurkeztu beharko dira alde zurretik.

7. artikulua.

Udalak erabiltzeko baimen bat atzera bota dezake ondoko kasuetan:

- a) 2.,4., eta 6. artikuluek xedatzen dutena ez betetzearren.
- b) Onuradunak larrea erabiltzen ez badu edo gutxi erabiltzen badu.
- c) Mendian eragindako kalteengatik onuradunak jasotako zehapenen ondorioz.
- d) Udalak ezarritako kanona eta bestelako tasak ez ordaintzearren ezarritako epean.
- e) Udalak eskatzen duen derrigorrezko auzotasuna galtzearren.
- f) Onuradunak baimenari uko egitearren.
- g) Baimendutako ez den beste erabilera egitea.
- h) Udalerrian urteko 9 hilabete baino gutxiago bizitzearren.
- i) Erabilpen eskubidea transmititzea edozein tituluren bitartez eta udalaren baimenik gabe.
- j) Toki Administrazioaren edozein zerga betebeharra egunean ez eta bete gabe izatea.
- k) Zer edo zer egiteagatik edo ez egiteagatik larreak arriskuan jartzearren. Beraien kontserbazioa edo mantentzearen kalte edo galerak eragitearren eta infekziozko gaixotasun kutsakorrek transmititu arazteko arriskua sortzearren.

l) Interes publikoa bermatuz emakidaren lursailari beharrezkoa den beste erabilera publiko bat ematea erabakiz gero, edo udalak onartu lanak edo proiektuak exekutarazteko.

m) Europar Batasuneko 2092/91 araudiak ekoizpen ekologikoari egokitzeko xedatzen duen konpromisoa ez betetzea bi urteko epean.

8. artikulua.

Erabilpen baimena 7.artikulan xedatutakoaren ondorioz amaituko balitz labakia bera, eta bertan egin hobekuntzak ere, udalaren esku geratuko lirateke, eta probetxua atera zuenak ez luke kalte-ordainen inolako eskubiderik izango.

9. artikulua.

Erabilera publikoko mendietan emandako erailpen baimenak ezin dira transferitu. Hala ere, salbuespen gisa, labakien erabilera transferitu ahal izango da ondoko kasuetan:

a) Onuraduna hilez gero, bere ezkontideri edo bere seme-alabari ordenantza honen baldintzak betetzen baditu.

b) Bizien arteko hitzarmenen ondorioz, baliaezintasuna edo erretirogatik, bere ezkontideri edo bere seme-alabari ordenantza honen baldintzak betetzen baditu.

c) Kasu berezietan bestelako senideri - aita-amari, bilobari, neba-arrebari, koinaturi, lehengusu-lehengusinari edo lobari- transferitzea posiblea litzateke, beti ere, ordenantza honen baldintzak betetzen baditu.

a) kasuan onuradunaren legezko oinordekoek eskatu beharko dute transferentzia. Kontzesioari eskubidea duten legezko oinordekoak nortzuk diren egiaztatzen duena giria aurkeztu beharko dute.Hildako onuradunak legezko oinordeko baten bati kontzesioa eman bazion horren egiaztagiria aurkeztuko dute ere, eta horrelako agirik ez balego legezko oinordeko guztien adostasun adierazten duen agiria aurkeztu beharko lukete. Halaber, eta honekin batera, ordenantza honen 4. artikulua xedatzen duen dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

b) kasuan erabilpen baimenaren titularrak transferentzia eskaera egin behar du eta kontzesioa eskuratuko duen senideak bere adostasuna sinatu beharko du ere. Era berean, titularra eta onuradun berriaren arteko ahaidetasuna adierazten duen agiria zein ordenantza honen 4. artikulua xedatzen duen dokumentazio guztia aurkeztu beharko da ere.

c) kasuko transferentziak ordenantza hau onartu baino lehen emandako kontzesioak gaur eguneko kontzesioen errealitateari egokitzeko baino ez dira onartuko. Era berean, etorkizunean horrelako transferentzia bat egin ahal izateko, Batzorde mistoak eskaera bakoitzaren baldintza bereziak zeintzuk diren baloratuko ditu eta txostena egingo du. Transferentzia hauek guztiek ez dute balio izango Udalak edo Bizkaiko Foru Aldundiaren Mendietako Zerbitzuak onartu arte.

10. artikulua.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Mendietako Zerbitzuak Udalari ordaindu behar zaion urteko kanonaren oinarrizko prezioa ezartzen badu ere udalak prezio hori igo dezake. Era berean, Udalak erabilera publikoko mendi lursailen kontzesioa ordaintzeko era eta epea zehaztuko ditu.

Urduña-Orduña udalak kanon honengatik urtero bildutako diru kopuruaren %24a sartuko du Hobekuntzen Fondoan.

11. artikulua.

Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik aurrera libre geratuko diren labakiak edo sortzen diren labaki berriak erabili ahal izateko Batzorde misto baten alde

aurretiko txostena ezinbestekoa izango da. Batzorde misto hori udalaren ordezkariak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Mendietako Zerbitzuak osatuko dute. Era berean, aholkulari gisa udalerrian egon daitezkeen abeltzainen elkarteen ordezkariak eta labakien erabilera dutenen ordezkariak parte har dezakete batzorde honetan.

Labaki bat erabiltzeko eskaera bat baino gehiago dagoenean Batzorde misto honek kontuan hartuko ditu ondoko irizpideak:

a) Abeltzainaren erabateko dedikazioa. (Erabateko dedikaziotzat jotzen da abeltzaintza ustiategi baten titularra den pertsona fisikak bere errenta osoko %50a ustiategitik atera eta ustiategirekin zerikusia ez duten bestelako jarduera batzuei dedikatzen dizkion lanorduak bere lanaldiaren erdira ailegatzen ez direnean). 2004ko martxoan Foru Aldundiak eta Eusko jaurlaritzak martxan jarri zuten Nekazari Gazteentzako Planaren lehengo instalaziorako laguntza neurrietan aipatzen denez abeltzaintzan edo nekazaritzan hasten ari diren gazteak prozesu progresiboa bete behar dutenez ezin dute baldintza hau bete eta salbuespena izango dira labakiak eskatzerakoan. Kasu hauetan kontzesioko bost urteko epean ATP izateko konpromisoa harturik, labakiaren erabilpen baimena emango da, Bost urteak igaro eta konpromisoa bete ez bada erabilpen baimena kenduko da.

b) Eskatzailearen egoera sozio-ekonomikoa.

c) Ordenantza honen 2. eta 4. artikuluek xedatzen dituzten baldintzak betetzea.

d) Beste labaki baten erabilpen baimena ez izatea.

e) Europar Batasunaren 2092/91 araudiaren araberako ustiategi ekologiko baten titularra izatea egokia den egiaztagiriaz, edo gehienbat bi urtetan aipatu araudiak xedatzen dituen ekoizpen baldintzei egokitzeko konpromisoa agertzea.

f) Eusko jaurlaritza eta Euskal Autonomia Elkarteak 2004an onartu Nekazari Gazteentzako Planaren arabera gazte nekazaria izatea edo instalatzeko prozesuan egotea.

Aipatu kasu hauek guztiak eta egon daitezkeen bestelako batzuk ere irizpide nagusiak izango dira erabilera publikoko mendi lursailetan erabilpen baimenaren eskaeraren inguruan erabaki bat hartzeko. Batzorde mistoak udalarekin batera lan egingo du labakien kontzesioak erabakitzerakoan.

12. artikulua.

Erabilera publikoko mendietan gaur egun indarrean dauden erabilera baimena eguneratu eta gero onuradun bakar bati eman ahal zaion lur-zatirik handiena 2 hektareakoa izango da. Gehienezko azalera hori handitu daiteke ondoko irizpidez : Labakiaren azalera osoa, labakiaren zatiezintasuna, eskatzailearen egoera sozio-ekonomikoa, eskatzaile kopurua. eta abar.

Behin behineko xedapena.-Ordenantza hau onartu baino lehenago emandako labakien gaur eguneko onuradunek, ordenantza hau indarrean sartu eta hurrengo egunetik hasita 30 eguneko epean, bere izenean edo oinordetzan duten labakiaren kontzesioa eguneratzeko eta eskuratzeko eskaera egingo diote udalari. Eguneratzeko eskaera egin ezean epe hori igaro balitz probetxua ez dela interesatzen interpretatu litzateke eta labakia udalaren esku geratuko zen adjudikazio berria egin ahal izateko. Eskatzaileak ordenantza honek ezartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

1.azken xedapena.-

Urduña-Orduñako udalerriko erabilera publikoko mendi lursailen emakida, onura eta probetxua arautzen dituen ordenantza honen interpretazioa eta zalantzak edo auzia sor daitezken arazoak Orduña-Urduñako udalak erabakiko ditu Batzorde mistoari entzun eta gero.



2. azken xedapena.-

Ordenantza honek arautzen ez dituen gauzetan Baso legeria, Mendi Legea eta Araudia, Mendi eta Natura-gune Babestuen Administrazioari buruzko Foru Araua, eta Toki Jardunbideari buruzko araudia aplikatuko da.

3. azken xedapena.-

Toki Jardunbideari buruzko legeriak xedatzen duenarekin bat eginez ordenantza honen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta indarrean sartuko da, Izan ere, ordenantza honek ez du indarra galduko bere aldaketa onartu arte edo indargabetzeko ebazpen berezia hartu arte.

ERANSKINA

— Erabilera publikoko 110. zenbakia duen herri-basoa:

Zaldiak.....	11, 55 €
Ardiak.....	1,45 €
Behiak.....	14,40 €

— Erabilera publikoko 103.-106.-109. eta 110. zenbakia duten herri basoak:

Zaldiak.....	5,10 €
Ardiak.....	0,45 €
Behiak.....	4,30 €

HOBARIA:

%50 hobari izango dute: Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen berezian dauden nekazaritzako ustiattegietako jabeak; betiere, jarduera bakarra egiten dutela ziurtatzen dutenean (Jarduera bakarra izango da errentaren %100 nekazaritza edo abeltzaintza-jardueratik ateratzen denenan, bizikidetza-unitatekoak barne)

Hobari hauek eskura daitezen dokumentazio hau aurkeztuko da:

-Eskatzen duena Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen berezian dagoen ziurtagiria.

-Bizikidetza-unitatearen pertsona guztien azkenengo errenta aitortpenaren fotokopia. Baten batek egin behar izan ez badu, salbuetsita dagoela adierazten duen dokumentua aurkeztu beharra dauka.

-Hobaria-eskaera.